# *Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko martxoan*

## ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko martxoan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.167 izan da, otsailean baino 48 gutxiago eta joan den urteko martxoan baino 101 gehiago. Egunean bataz bestez 56 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 5 eskaintza gutxiago egunean.

### • LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko martxoan 175 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 447 Gipuzkoan eta 545 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 46,7 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 38,3 Gipuzkoan eta % 15 Araban.

**Eskaintzaren Lurralde Historikoa**




Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 6,1 hazi dira eskaintzak (10 eskaintza gehiago), Gipuzkoan % 10,2 murriztu dira (51 eskaintza gutxiago) eta Bizkaian eskaintza kopurua % 1,3 murriztu da (7 eskaintza gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban eskaintza bat gehiago erregistratu da, % 0,6ko hazkundea; Gipuzkoan eskaintza kopurua 37an hazi da, % 9ko hazkundea, eta azkenik, Bizkaian 63 eskaintza gehiago izan dira, % 13,1eko hazkundea.

### • LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. Ia 5 eskaintzeko 1 zerbitzuetako lanbide-profilerako erregistratu da (247 eskaintza); industriako langileen lanbide-profilak jarraitzen dio (206 eskaintza). Laguntzarako teknikari, zientzia teknikari eta okupazio ez kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 198, 168 eta 157 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu den profila zuzendariena izan da (9 eskaintza soilik), lehen sektoreko langileen eskaintzen atzetik (11 lan-eskaintza).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, gehien hazi diren eskaintzak, balore erlatiboetan zuzendarienak izan dira (% 50ako hazkundea, 3 eskaintza gehiago); aldiz, balore absolutuetan, zerbitzu sektoreko profiletakoak izan dira (23 eskaintza gehiago, % 10,3ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintzak, bai balore absolutuetan bai balore erlatiboetan, operadoreena izan da (28 eskaintza gutxiago, % 27,7ko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, kualifikatu gabeko profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (41 eskaintza gehiago, % 35,3ko hazkundea), balore erlatiboetan, aldiz, zuzendarien profilekoak (%125eko hazkundea, 5 eskaintza gehiago). Balore erlatiboetan gehien murriztu diren eskaintzak administrarienak izan dira (%7,6ko murrizketa, 8 eskaintza gutxiago); balore absolutuetan, ordea, industriako profilekoak eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (14 eskaintza gutxiago, % 6,4ko murrizketa).

## • KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 12,8k kontratu mugagabea eskaini dute; % 86,6k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,7k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 149 izan dira, 15 gutxiago aurreko hilabetearekin alderatuz, % 9,2ko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 26 gutxiago erregistratu dira: 1.010 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 2,5ekoa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko martxoan 8 izan dira, aurreko hilean baino 7 gutxiago.




Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 15 gehiago izan dira (% 1,2ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 9,3 hazi dira, 86 eskaintza gehiago eta merkataritzako kontratuak, aldiz, konstante mantendu dira.

## • ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko martxoan erregistratutako lan-eskaintzen ia 2 herenek (760 eskaintza) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 19,1ek (223) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Eskaintzen % 12,2k, 142k, urte 1etik 3ra arteko esperientzia eskatzen du. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 3,2eko eta % 0,4ko pisua dute, hurrenez- hurren (37 eta 5 eskaintza guztira).




Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, 1 eta 3 urte arteko eta 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen duten eskaintzak hazi dira (9 eta 12 eskaintza gehiago hurrenez hurren, % 6,8ko eta % 48ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintzak, balore erlatiboetan, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan dira ( % 16,7ko murrizketa, eskaintza bat gutxiago); balore absolutuetan 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak( 66 eskaintza gutxiago, % 8ko murrizketa).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: balore absolutu gehien hazi diren eskaintzak 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (50 eskaintza gehiago, %7ko hazkundea); balor e erlatiboetan, aldiz, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (% 22,5eko hazkundea, 41 eskaintza gehiago). Murriztu diren eskaintza mota bakarrak 5 urte baino gehiago eskatzen dutenak izan dira (4 eskaintza gutxiago, %44,4ko murrizketa).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 8 hileko esperientzia eskatzen dute, 2018ko martxoan eta 2019ko otsailean bezain beste.

## • LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 17,2k zehazten du datu hori (1.167 eskaintzetatik 201). 201 eskaintza horietatik, 152 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 49ak lanaldi partziala eskaini dute.




Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 8 gutxiago izan dira otsailarekin alderatuz, hau da, % 5 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 7 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 16,7koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 32 gehiago izan dira (% 26,7ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko eskaintza bat gehiago erregistratu da (% 2,1eko hazkundea). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko martxoa, 2019ko otsaila eta martxoa), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2018ko martxoan izan da, % 28,6ko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien aldean.

## • ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 1,4 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.167 eskaintzetatik 16 soilik. Aurreko hilean 21 izan ziren.

## • ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 85ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.167 eskaintzetatik 175k soilik zehaztu dute.




175 eskaintza horietatik, 81ek LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 46,3k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 41 eskaintza (% 23,4). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 36 eskaintzekin (% 20,6). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 17 eskaintzekin, eta % 9,7ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 175 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago martxoan lan-eskaintza gutxiagotan zehaztu dela prestakuntza maila otsailean baino (175 eskaintza martxoan; 226 otsailean), eta hauen pisua

eskaintza guztien artean txikiagoa izan da (% 15 martxoan eta % 18,6 otsailean). Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira batxilergokoak izan ezik (5 eskaintza gehiago, %41,7ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (26 eskaintza gutxiago, % 24,3ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (% 30,5eko murrizketa, 18 eskaintza gutxiago).

2018ko martxoarekin alderatuz, eskaintzak mota guztiak hazi dira, unibertsitateko ikasketenak izan ezik (12 eskaintza gutxiago, % 22,6ko murrizketa). Gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (12 eskaintza gehiago, %50eko hazkundea).

- ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak manufaktura-industria, merkataritza, eraikuntza eta jarduera administratiboak dira, eskaintzen % 17,3ko, % 15,1eko, % 9,8ko eta % 9,4ko pisuarekin, hurrenez-hurren (202, 176, 114 eta 110 lan-eskaintza 1.167 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien hazi diren eskaintza motak, balore absolutuetan, ostalaritzakoak izan dira (13 eskaintza gehiago, % 13,4ko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, ur-horniketako eskaintzak izan dira (% 80ko igoera, 4 eskaintza gehiago). Eboluzio negatiboa izan dutenen artean, balore absolutuetan bilakaera okerrena izan dutenak eraikuntzako eskaintzak izan dira (20 eskaintza gutxiago, % 17,4ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, energia-horniketako eskaintzak izan dira (% 100eko murrizketa, eskaintza bat gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eboluzio okerrena pairatu duten eskaintzak, balore absolutuetan, eraikuntzakoak izan dira (10 eskaintza gutxiago, % 9,4ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, energia-horniketakoak izan dira (% 100eko murrizketa, 2 eskaintza gutxiago). Bestalde, balore absolutuetan, jarduera administratiboetako eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (29 eskaintza gehiago, % 34,1eko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, higiezinen jardueretako eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 400eko hazkundea, 4 eskaintza gehiago).